

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

14/2026 Foru Agindua, urtarrilaren 30ekoa. "Ignacio Aldecoa Ipuinaren Nazioarteko Saria" gaztelaniazko ipuinen 55. lehiaketaren deialdia onartzea

Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunen artean daude kultura-etxearen erabiltzaileen kategoria desberdinetara bideratutako kultura- eta hezkuntza-jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta gauzatzea, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuan zehazten denaren arabera.

Horrela, bada, literatura-artearen arloan, Arabako Foru Aldundia "Ignacio Aldecoa Ipuinaren Nazioarteko Saria" izeneko gaztelaniazko ipuin-lehiaketa deitzen ari da 1971tik, etenik gabe, artistak bertan direla eta kultura eta gizarte arloan oihartzun handia dutela. Sari horrekin saritutako pertsonen artean gaztelaniaz idazten duten literatura-figura nabarmenak daude.

Lehiaketa honen helburua da gaztelaniazko literatura-sorkuntza sustatzea, eta literatura-figura berriak edo sendotzen ari diren figurak aurkitzea, Ignacio Aldecoaren irudia gogoratuz eta gorai patuz.

Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko sariak emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren (ALHAO, 51. zk., 2022ko maiatzaren 4koa).

Ekimen horri eustea beharrezkotzat jo da, eta nahitaezko txostenak aztertu dira.

Ondorioz, niri emandako ahalmenez baliatuz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gaztelaniazko "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" izeneko 55. ipuin-lehiaketaren deialdia onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. Kandidaturak aurkezteko eredia onestea, foru agindu honen II. eranskinean dagoena.

Hirugarrena. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko sariak emateko oinarri orokor arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera arautzen da (oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren, eta 2022ko maiatzaren 4ko ALHAOn, 51. zenbakian, argitaratu zen), bai eta ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera ere.

Laugarrena. Foru Agindu honen bidez araututako sariak Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko gastu-aurrekontuko 70104. G/332701/47900704 partidaren kargura ordainduko dira («Literatur sarien deialdiak»), eta 12.000,00 euroko gehieneko zenbatekoa ezartzen da guztira.

Bosgarrena. Ebazpenak gehienez ere sei hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. Saria emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie saridunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta ALHAOn argitaratuko da.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 30a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

I ERANSKINA

“Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Sariaren” 55. deialdia

1. artikulua. Xedea eta helburua

1. “Premio Internacional de Cuento Ignacio Aldecoa” sariaren 55. edizioaren helburua da aparteko kalitateko literatur lan original eta argitaratu gabeak saritzea. Lan horiek ipuinak izan behar dira eta gaztelaniaz idatzita egon.

2. Lehiaketa honen helburua gaztelaniazko literatur sorkuntza sustatzea da, bai eta literatura figura berriak edo sendotze bidean daudenak aurkitzea ere, eta aldi berean, Ignacio Aldecoa gogorarazi eta goraiatzea.

3. Deialdi hau Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren sariak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileek arautzen dute. Oinarri horiek apirilaren 26ko 18/2022 Foru Dekretuak onetsi zituen.

2. artikulua. Emateko prozedura

Saria norgehiagoka bidez emango da. Saria emateko, aurkeztutako obrak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, horretarako izendatutako epaimahaiak egindako balorazioaren arabera.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena eta sariaren zenbatekoa

1. Sari bakarra emango da. Sariaren aurrekontu zuzkidura 12.000,00 euro da.

2. 12.000,00 euroko gehienezko zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2026ko honako gastu aurrekontuko partida honetatik ordainduko da: 70104. G/332701/47900704 “Literatura sariaren deialdiak”

4. artikulua. Saria eskuratu nahi dutenen betekizunak

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean 16 urte beteta dituzten pertsona fisikoek, haien nazionalitatea eta bizilekua edozein dela ere.

5. artikulua. Lanen ezaugarriak

Parte-hartzaileak ipuin-bilduma bat bidali beharko du, gutxienez 20.000 hitzekoa, inprimategiko tipografiarekin idatzita (arial motakoa, 12 edo antzekoa) eta tarte bikoitzean. Ipuin bilduma horretatik bat aukeratu beharko du, lehiaketan parte hartuko duena. Ipuinek originalak izan behar dute, ez dute inongo formatutan argitaratu egon behar (ez inprimaturik, ez digitalik), eta jatorriz gaztelaniaz idatziak izan behar dute.

6. artikulua. Hautagaitzak aurkezteko moduak

1. Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak bide hauetakoren bat erabili beharko dute hautagaitza aurkezteko:

a. Aurkezpen telematikoaren bidez. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/curso-cuentos-premio-ignacio-aldecoa-castellano>.

b. Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behea), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan aurreikusitako gainerako moduetako edozeinetan. Lege horrek ezarritakoarekin bat etorritik, postaz bidalitako hautagaitzak ere onartuko dira. Atal honetan jasotako moduan aurkezten diren eskabideak deialdi honetako II. eranskineko eredura egokitu beharko dira.

2. Hautagaitzekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a. Bitarteko elektronikoaren bidez aurkeztuz gero:

Lehiaketara aurkezten den ipuina, PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.cuento.pdf

Ipuinen bilduma, PDF formatuan erantsi behar da. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.coleccion.pdf

Lanen formatu informatikoetan ezin da egilearen izena agertu.

b. Aurrez aurre edo posta bidez aurkeztuz gero:

Hautagaitzak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu edo hara bidali (Probintzia plaza 5, behea 01001 Vitoria-Gasteiz), eta "Premio Internacional de Cuento Ignacio Aldecoa" erreferentzia izan behar dute. Honako hauek bidali behar dira:

- Lehiaketara aurkezten den ipuina, euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea), PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.cuento.pdf

Ipuin bilduma euskarri informatiko berean (CDa edo pendrivea), PDF formatuan. Eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena fitxategi horri: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.coleccion.pdf

Lanen formatu informatikoetan ezin da egilearen izena agertu.

- Deialdi honen II. eranskina, behar bezala beteta.

II. eranskinean, lehiaketara aurkezten den ipuinaren izenburua, ipuin bildumaren izenburua eta aurkeztutako lana identifikatzeko erabiliko den izengoitia adierazi behar dira.

3. Artikulu honetako aurreko apartatueta adierazitakoarekin bat ez datozen bidalketak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2026ko martxoaren 31ean amaituko da, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua).

8. artikulua. Beste sari batzuekiko bateraezintasuna

1. Ezin dira lehiaketa honetara aurkeztu aurretik beste lehiaketa edo sariketa batean saria jaso duten lanak. Aurkeztutako obratzat hartuko da, bilduma osatzen duten ipuin guztiak, baita aurkezteko hautatutakoa ere.

2. Beste deialdi batekin batera aurkezten den lanak saria jasotzen badu, egileak berehala jakinarazi behar du, eta bere obra deialdi honetatik kanpo geratuko da.

3. Ezin izango dute parte hartu aurreko bost edizioetatik edozeinetan saria lortu dutenek.

9. artikulua. Hautagaitzak baloratzeko irizpideak

1. Saria ematean, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dira, aurkeztutako hautagaitzak alderatuz.

2. Saria emateko, aurkeztutako obrak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

LANAREN SORMENA ETA ORIGINALTASUNA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 4 PUNTU)
Oso handia	4 puntu
Handia	3 puntu
Ertaina	2 puntu
Txikia	puntu 1

NARRAZIOAREN EGITURA ETA ERITMOA: EKINTZAREN ETA GERTAKARIEN SEGIDAREN ANTOLAKETA EGOKIA, OBRAREN UNE GORENERA IRITSI ARTE	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	puntu 1
Txikia	0 puntu

ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ABERASTASUNA ETA OBRAREN GARAPENAREN KOHERENTZIA	HAZTAPENA PUNTUTAN (GEHIENEZ 3 PUNTU)
Oso handia	3 puntu
Handia	2 puntu
Ertaina	puntu 1
Txikia	0 puntu

10. artikulua. Epaimahaia

1. Gaitasun profesionalaren eta esperientziaren irizpideen arabera hautatutako epaimahai kalifikatzaileak deialdira aurkeztutako lan anonimoak aztertuko ditu, eta horien balorazioa zehaztuko duen txostena egingo du, deialdi honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

2. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duenaren ezarritakoa betez, sariak emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osiera orekatua izan behar du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza izan behar du kideek. Legegintzako dekretua horren arabera, lau kideetik gorako epaimahaietan edo antzeko organoetan ordezkaritza orekatua dagoela joko da sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badu, eta gainerakoetan, berriz, bi sexuak ordezkaturata badaude.

3. Epaimahaia osatzen duten pertsonak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute eta honako hauek adierazi: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio arrazoien eraginpean, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdian ezarritako irizpideen arabera eskabideak baloratzeaz bestelako helburu baterako, eta txostena egin ondoren deialdiko dokumentazio guztia prozeduraren instrukzio organoari itzuliko diotela. Epaimahaikideen izendapenak Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesdunek errekusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, legez ezarritako egoera eta baldintzetan.

4. Epaimahaiari obra anonimizatuak bakarrik emango zaizkio. Egileen datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean gordeko dira, eta epaimahaiak ezingo ditu eskuratu.

5. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

6. Berdinketa gertatuz gero, saria pertsona gazteenari emango zaio. Oraindik ere berdinketa izanez gero, saria emakumezko hautagaiari emango zaio.

7. Saria eman gabe geldi daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

8. Saritu ez diren lanak ez dira itzuliko, eta hogeita hamar eguneko epean suntsituko dira, epaimahaiak epaia eman eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Prozeduraren izapideak eta ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Etxeko Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Deialdian sortzen edo planteatzen diren gai guztiak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarena da, eta eskumen eskusiboa da, gainera.

3. Epaimahaiak deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako hautagaitzak, eta txosten bat emango du bere erabakia zehazteko. Epaimahaiak instrukzio organoari igorriko dio txostena. Organo horrek behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, epaimahaiaren balorazioaren arabera, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

4. Kultura eta Kirol Saileko titularrak dagokion ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

5. Saria emateko ebazpena saridunari jakinaraziko zaio, eta ALHAOn argitaratuko da.

12. artikulua. Saria ematetik eratorritako betebeharrak eta konpromisoak

Deialdi honetan ezarritako saria lortzen duenak konfidentzialtasuna gorde beharko du saria emateari buruz, harik eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak horren berri ematea erabakitzen duen arte.

13. artikulua. Argitaratzeko eskubidea

1. Arabako Foru Aldundiak saritutako ipuina argitaratuko du lehiaketara bidalitako bildumarekin batera, ospe handiko argitaletxe batekin, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean. Horretarako, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik sariaz lortutakoaz gainera. Saldutako kopien egile eskubideen aurrerapena izango da sariaren zenbatekoa.

2. Saria irabazten duen egileak lehiaketara aurkeztutako lana (ipuina eta ipuin bilduma) ustiatzeko eskubide eskusiboak lagako ditu, zazpi urterako, mundu osoan gaztelaniaz argitaratzeko.

14. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jarriko da ikusgai: <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>.

15. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Deialdi hau honela arautuko da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzkoa.
- Ekitaldi honetarako indarrean dagoen aurrekontua betearazteko foru araua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.
- Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- Aplikatzekoa den beste edozein.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Literatura sariak Premios literarios PREMIO ALDECOA II. ERANSKINA • ANEXO II
--	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

LITERATURA LEHIAKETA ■ CONCURSO LITERARIO

"Premio Internacional de Cuento Ignacio Aldecoa" literatura lehiaketa / Concurso literario "Premio Internacional de Cuento Ignacio Aldecoa"

Lehiaketara aurkezten den ipuinaren izenburua ■ Título del cuento a concurso *

Bildumaren izenburua ■ Título de la colección *

Ezizena ■ Seudónimo *

DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES

Izena ■ Nombre *		
Lehen deitura ■ Primer apellido *		Bigarren deitura ■ Segundo apellido
Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N.º identificativo *
Aukeratzea / Seleccionar		
Sexua ■ Sexo	Adina ■ Edad	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *
Aukeratzea / Seleccionar		
Posta helbidea ■ Dirección postal *		
Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *		Beste telefono bat ■ Otro teléfono

ZINPEKO DEKLARAZIOA:

- Honen bidez, adierazten dut goian adierazitako literatura lehiaketara

izenordearekin aurkeztutako

izeneko lana originala eta argitaragabea dela, eta ez duela saririk jaso beste ezein lehiaketa edo sariketatan, aurkezpen egunera bitartean.

- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut

DECLARACIÓN JURADA:

- Por la presente, declaro que la obra

presentada al concurso literario arriba indicado bajo el seudónimo

es original e inédita y no ha sido premiada, hasta la fecha de presentación, en ningún otro certamen o concurso.


- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.

Egitarazleak helbidea Dirección de comprobación
<https://e.s.araba.eus/awsp/portal/ConsultaCoe>Egiaztapen kodea Código de verificación
YU26-F5aL-lpV6-V5aV

Tokia ■ Lugar	<input type="text"/>
Data ■ Fecha	<input type="text"/>

RE. 26/021

Orria ■ Hoja 1/2



DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO ARGIBIDEA

Jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZEN ETA SARIEN KUDEAKETA" izeneko tratamenduetan sartuko direla, Kultura Zuzendaritzak emandako laguntzak, dirulaguntzak, beka eta sariak kudeatzeko. Datu horien tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudia eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.

Zure datuen konfidentialtasuna bermatzen dugu, eta ez dizkiegu hirugarrenei jakinaraziko, salbu eta legeak ezarritako kasuak badira tartean.

Eskubidea duzu, DBEOn hala jasota baitago, zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere, Egoitza Elektronikokoaren bidez (www.araba.eus) edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora joz (Probintzia plaza 5, 01001 PK, Vitoria-Gasteiz, Araba).

Argibide gehiago:
<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar a los tratamientos denominados "GESTIÓN DE SUBVENCIONES Y PREMIOS EN MATERIA DE CULTURA", con la finalidad de gestionar las ayudas, subvenciones, becas y premios concedidos por la Dirección de Cultura. El tratamiento de estos datos se realizará de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Para más información:
<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

